$$\text{MB: } c(\text{Az}^-) = [\text{Az}^-] + [\text{HAz}]$$

$$\text{KB: } [\text{Ac}^-] + [\text{OH}^-] = [\text{H}_3\text{O}^+] + [\text{Na}^+]$$

$$\text{KB: } [\text{Ac}^-] + [\text{OH}^-] = [\text{H}_3\text{O}^+] + [\text{HAc}] + [\text{Ac}^-]$$

$$\text{KB: } [\text{OH}^-] = [\text{H}_3\text{O}^+] + [\text{HAc}]$$

$$[\text{OH}^-] \approx [\text{HAc}]$$


$$K_b = \frac{[\text{HAc}][\text{OH}^-]}{[\text{Ac}^-]} = 10^{-9.35} \quad \longrightarrow \quad K_b = \frac{[\text{OH}^-]^2}{c(\text{Ac}^-)} = 10^{-9.35}$$

$$c(\text{Ac}^-) \approx [\text{Ac}^-]$$



$$c(\text{Az}^-) = c(\text{Na}^+)$$


$$K_b = 10^{-9,35}$$




$$[\text{OH}^-] = \sqrt{K_b c_{\text{Ac}^-}}$$

## Protolito ahula

### Azetatoaren disoluzioak



pH=8,83





pH=8,33

## Protolito ahula



azido ahulak: espezie kationikoak



$$c(\text{NH}_4^+) = [\text{NH}_4^+] + [\text{NH}_3]$$



$$K_a = \frac{[\text{NH}_3][\text{H}_3\text{O}^+]}{[\text{NH}_4^+]} \approx \frac{[\text{H}_3\text{O}^+]^2}{c(\text{NH}_4^+)} = 10^{-9.55}$$



03.GAIA

**03.4.DISOLUZIO INDARGETZAILEAK**

## Osagaiak

- Disoluzio batean honako bi osagai hauek izanez gero
  - azido edo base ahula
  - dagokion gatza / base konjokatuadisoluzio indargetzailea (D.I.) dugu.

## Baldintzak:

- Bi espezieren kontzentrazioaren arteko erlazioa:  $0,1 < C_{HA} / C_{A^-} < 10$
- Kontzentrazio handiak:  $C_{HA} / K > 10$  eta  $C_{A^-} / K > 10$

## Adibideak.





## Ezaugarriak


Aldaketak (diluitzean edo sustantzia baten gehiketa) jasan ondoren disoluzio hauen pHa konstantea dihardu

- Izan ere, disoluzio hauetan daude
  - espezie azido bat,  $\text{OH}^-$  taldearekin erreakzionatzeko
  - espezie basiko bat,  $\text{H}_3\text{O}^+$  espeziearekin erreakzionatzeko

Diagrametan 3. zonalde honetan betetzen da:

$$0,1 < C_{\text{HA}} / C_{\text{A}^-} < 10$$

Beraz, espezie honen DI bezala erabiltzeko pH tartea 3-6 da (— markan dagoen zonaldea)  
Orokorrean pH honetan :  $\text{pKa} - 1 < \text{pH} < \text{pKa} + 1$



## HAz/ NaAz sistema

Ikusiko ditugu gertatzen diren erreakzio guztiak

- HAz ahula denez hona hemen dagokion ionizazioa



- NaAz gatza erabat disoziatzen da



- $\text{Na}^+$  katioia ez azidoa da, ez du urarekin erreakzionatuko, hidroxilo taldeak hartzeko joera ez baitu.
- $\text{Az}^-$ , aldiz, base ahula da eta hidrolisia gertatuko da.



## HAz/ NaAz sistema

- Ematen du ez dela ezer gertatzen:



- Kalkuluak sinplifikatzen dira honako suposaketa bat egitean:
- Espezien kontzentrazioak handi samar baldin badira (>0.1M) azidoaren ionizazioa eta gatzaren hidrolisia meziprezagarriak dira. Honela, hasierako kontzentrazioak erabili ahal dugu oreka-kontzentrazioak izango balira bezala eta kalkuluak oso sinpleak geratzen dira.

## HAz/ NaAz sistema



- Kalkuluak sinplifikatzen dira honako suposaketa bat egitean:
- Onartzen da disoluzio honetako orekan:

$$[\text{HAz}] = c_{\text{HAz}} \quad \text{eta} \quad [\text{Az}^-] = c_{\text{NaAz}}$$

## HAz/ NaAz sistema

- Zergatik hasierakoa onargarria da?
- Honela argudiatu ahal dugu
- Disoluzioan [HAz] nondik dator?
  - a) Alde batetik eta nagusiki, hasierako azidotik (1)
  - a) Bestetik [Az<sup>-</sup>] jasandako hidrolisitik(3), oso gutxi, konstantearen baloreak ikusita, eta mesprezagarria. Beraz (3)orekatik sortutako [HAz] ez dugu kontuan hartuko.

$$[\text{HAz}] = c_{\text{HAz}}$$

## HAz/ NaAz sistema

- Zergatik hasierakoa onargarria da?
  - Honela argudiatu ahal dugu
  - Disoluzioan [Az<sup>-</sup>] nondik dator?
- a) Alde batetik, nagusiki gatzaren disoziazioetik (3)
- b) Bestetik azidoaren (1)orekatik oso gutxi, konstantearen baloreak ikusita, eta mesprezagarria. Beraz (1)orekatik sortutako [Az<sup>-</sup>] ez dugu kontuan hartuko.

$$[\text{Az}^-] = c_{\text{NaAz}}$$

## Kalkuluak

- Aurrekoa ikusita D.I. guztietarako esan daiteke:

$$K_a = \frac{[H_3O^+][A^-]}{[AH]} \qquad [H_3O^+] = K_a \frac{[AH]}{[A^-]} = K_a \frac{c_{AH}}{c_{A^-}}$$

$$pH = pK_a + \log \frac{c_{A^-}}{c_{AH}}$$

Henderson-Hasselbachen  
ekuazioa

Baldintzak

$$\frac{c_{HA}}{K_a} > 10$$

$$\frac{c_{A^-}}{K_a} > 10$$

$$0,1 < \frac{c_{HA}}{c_{A^-}} < 10$$

## HAz/ NaAz sistema pH-diagramaren bidez


• Kontuan hartzeko erreakzioa:



$$[\text{Ac}^-] = C_{\text{NaAc}} \quad \text{eta} \quad [\text{HAc}] = C_{\text{HAc}}$$

$$K_a = \frac{[\text{H}_3\text{O}^+][\text{Ac}^-]}{[\text{HAc}]} = \frac{[\text{H}_3\text{O}^+] C_{\text{NaAc}}}{C_{\text{HAc}}}$$

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = K_a \frac{C_{\text{HAc}}}{C_{\text{NaAc}}}$$



Erabiltzeko tartea



## Ezaugarriak

- D.I. diluitzean, pHa konstantea dihardu

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = K_a \frac{(C_{\text{HAc}})_1}{(C_{\text{NaAc}})_1} = K_a \frac{(C_{\text{HAc}})_2}{(C_{\text{NaAc}})_2}$$

- Azido edo base kantitatea gehituz gero pHa konstantea dihardu

Jarraian konprobaketa egingo dugu

## Ezaugarriak

Zer gertatzen da 1L urari 1M den HCl disoluzioaren 1 mL gehitzean?

1 L H<sub>2</sub>O purua

pH = 7



1 M den HCl 1 mL gehituz gero



$$[\text{H}_3\text{O}^+] = [\text{Cl}^-] = c_{\text{HCl}}$$

pHa amaieran: pH = 3

## Ezaugarriak


Zer gertatzen da HAc 1 M/NaAc 1 M 1L-ko disoluzio bati 1M den HCl 1 mL gehituz gero?

D.I.-ren pHa kalkulatu da.

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = K_a \frac{C_{\text{HAc}}}{C_{\text{NaAc}}} = 10^{-4,65} \frac{1}{1} = 10^{-4,65} \quad \text{pH} = 4,65$$

## Ezaugarriak

HCl 1 M 1 mL gehituz gero



$$c_{\text{Ac}^-} = \frac{0,999 \text{ mol}}{1,001 \text{ L}}$$


$$c_{\text{HAc}} = \frac{1,001 \text{ mol}}{1,001 \text{ L}}$$

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-4,65} \frac{1,001}{0,999} = 10^{-4,6491}$$

$$\text{pH} = 4,6491$$

## Ezaugarriak

Zer gertatzen da HAc 1 M/NaAc 1 M 1L-ko disoluzio bati 1M den NaOH 1 mL gehituz gero?



$$C_{\text{HAc}} = \frac{0,999 \text{ mol}}{1,001 \text{ L}}$$

$$C_{\text{Ac}^-} = \frac{1,001 \text{ mol}}{1,001 \text{ L}}$$

$$[\text{H}_3\text{O}^+] = 10^{-4,65} \frac{0,999}{1,001} = 10^{-4,6508}$$

$$\text{pH} = 4,6508$$

## Indikatzaileak

- $a \rightleftharpoons b + H^+$  azido-base sistemak dira
- a eta b protolitoek kolore desberdina daukate eta azido/base ahulak dira
- Tanta batzuk baino ez direlako erabiltzen, indikatzaileak ez du disoluzioaren pHa aldatzen.
- Kolore-aldaketari dagokion pH-tartea,  $pK_a$ -ren araberakoa izango da:  $pK_a - 1 < pH \text{ kolore-aldaketa} < pK_a + 1$

## Indikatzaileak

Kolore-aldaketari dagokion pH-tartea, pK<sub>a</sub>-ren araberakoa izango da

$$pK_a - 1 < \text{pH kolore-aldaketa} < pK_a + 1$$

Gizakion begiak bereizten du protolito bakoitzaren kolorea bere kontzentrazioa bestearena baino 10 aldiz handiagoan bada. Orduan honako orekatik abiatuta



## Indikatzaileak

- Honako orekatik abiatuta




Behapenetako **hiru muga- egoera** suposa dezakegu

$[\text{HIn}] > 10 [\text{In}^-]$  **gorria** kolorea ikusgarria da

$[\text{In}^-] > 10 [\text{HIn}]$  **horia** kolorea ikusgarria da

$0,1 < [\text{HIn}] / [\text{In}^-] < 10$  **gorrixka** kolorea ikusgarria da





## Indikatzaileak

- Lehenbiziko muga

$[HIn] > 10 [In^-]$  **gorria** kolorea ikusgarria da

$$[H_3O^+] = K_a \cdot \frac{[HIn]}{[In^-]} = [H_3O^+] = K_a \cdot \frac{10[In^-]}{[In^-]} = 10 K_a \rightarrow pH = pK_a - 1$$

- Bigarren muga

$[In^-] > 10 [HIn]$  **horia** kolorea ikusgarria da

$$[H_3O^+] = K_a \cdot \frac{[HIn]}{[In^-]} = [H_3O^+] = K_a \cdot \frac{[HIn]}{10[In^-]} = \frac{1}{10} K_a \rightarrow pH = pK_a + 1$$


## Indikatzaileak

$0,1 < [\text{HIn}] / [\text{In}^-] < 10$  gorrixka kolorea ikusgarria da




$$pK_a - 1 < pH < pK_a + 1$$

- Grafikoki ikus dezakegu

## 3.6. Indikatzaileak




# Indikatzaileak




INDICADOR	COLOR ÁCIDO	COLOR BÁSICO	INTERVALO DE pH DE CAMBIO DE COLOR
Azul de timol	Rojo	Amarillo	1,2 - 2,8
Naranja de metilo	Rojo	Amarillo	3,2 - 4,4
Azul de bromofenol	Amarillo	Violeta	3,0 - 4,6
Rojo congo	Azul	Rojo	3,0 - 5,0
Rojo de metilo	Rojo	Amarillo	4,2 - 6,3
Azul de bromotimol	Amarillo	Azul	6,0 - 7,6
Tornasol	Rojo	Azul	6,0 - 8,0
Azul de timol	Amarillo	Azul	8,0 - 9,6
Fenolftaleina	Incoloro	Rosa	8,2 - 9,8
Amarillo de alizarina	Amarillo	Violeta	10,0 - 12,1

Figura 1. Estructura del Anaranjado de metilo en medio básico y en medio ácido

## Indikatzailak



## Indikatzaileak



## BIBLIOGRAFIA

1. Chang, R., Goldsby, K. A.: *Química*; 11ª Ed. McGraw-Hill; Mexico, D. F., (2013)
2. Petrucci, R. H., Herring F. G.; Madura, J.D.: *Química General*. Ed: Pearson Education, 10ª Ed., Madrid, (2011)
3. Valenzuela, C.: *Química General e Inorgánica para estudiantes de Farmacia*. Ed. Universidad de Granada, Granada, (2002)
4. Lothar Beyer: *Química Inorgánica*. Ed. Ariel Ciencia, Barcelona(2000)
5. Housecroft, C. E., A. Sharpe: *Química Inorgánica*. Ed. Pearson Prentice Hall, Madrid (2006)
6. Shivers & Athkins: *Química Inorgánica*. Ed: Mac Graw Hill, México (2008)
7. M. Silva y J. Barbosa: *Equilibrios iónicos y sus aplicaciones analíticas*. Ed. Síntesis S.A., Madrid (2004)



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea



# 04.GAIA: ERREDOX SISTEMAK

Farmaziako graduaren 1.maila  
Kimika Orokorra eta Ez-organikoa



## **1. Oinarrizko kontzeptuen berrikuspena**

1.a: Deskribapena

1.b: Indar elektroeragilea, oreka eta  $\Delta G$

1.c: Elektrodo-potentzial ez estandarra. *Nernsten* ekuazioa

1.d: E eta oreka-konstantea

## **2. Erredox egonkortasuna**

2.a: Uraren erredox egonkortasuna pH-ren arabera

2.b: Oxidazioarekiko metalen egonkortasuna

2.c: Egonkortasuna dismutazioarekiko

### ***3. Elektrodo – potentzial formalak***

3.a: pH-aren eragina

3.b: Elektrodo-potentzial formalak eta disolgarritasuna

### ***4. Indarelektroeragilearen diagramak***

4.a : Latimer-diagramak

4.b: Boltio-baliokidearen edo Frost-en diagramak

# 1. OINARRIZKO KONTZEPTUEN BERRIKUSPENA

## 1. A. :DESKRIBAPENA



### 1. A. :DESKRIBAPENA

Lehenengo oxidazioa ?

- Lehenengo oxidazioa harpe-gizakiek eragin zuten, jakin gabe.
- Cu-zko harriak, malakita berdea, sukalde lanetan sutzarren ondoan ipini omen zuten, bat-batean egurra ikatz bihurtzean harriari “odola” zeriola nabaritzuz.
- Izan ere, harritik, likido gorrizka sortu zen, kobre urtuta, hain zuzen ere.
- Bertan gertatzen den erredukziozko erreakzioa da, ikatza erreduzizailea izanik.
- Izan daiteke metalak urtzeko lehen bidea.



### 1. A. :DESKRIBAPENA

➤ Erredox erreakzioetan sustantzien arteko **elektroien trukea gertatzen da eta, horren ondorioz, zenbait atomok beren oxidazio-egoera aldatzen dute.**

➤ Lewisen azido-base erreakzioetan elektro-bikoteak transferitzen dira basetik azidora baina honek ez du esan nahi horiek erredox erreakzioak direnik, oxidazio-egoeraren aldaketarik ez baitago.

➤ Erredox erreakzioak oso arruntak dira kimikan; esaterako, ur-purifikazioan eta izaki bizidunetan gertatzen diren makina bat erreakzio erredox motakoak dira.

- . Etanolaren oxidazioa azetaldehidoa emateko

- . Akzio-potentzialak: gihar-uzkurdura, ioi-truke....

- . Alkohol-testa



- . Arnasa egitean: O<sub>2</sub>-a CO<sub>2</sub>-ra erreduzitzen da, aldi berean Fe<sup>2+</sup>-a Fe<sup>3+</sup>-ra oxidatzen da (hemoglobinan)

➤ Erredox erreakzioak elektrokimika batera aztertzen dira, arlo honetako oinarria baitira.

## 1. A. :DESKRIBAPENA

## Elektrokimikaren jatorria

- Igelen giharrak bi metalekin ikutuz gero uzkurtzen ziren
- Alessandro Voltak estimulu elektriko hau bi metalen elkarrekintzari zor ziola pentsatu zuen




Lehen bateria kimika  
(1800)

A. Voltaren 270. jaiotze-urteurrenaren oroitzapenezko Google-ren logotipoa

## 1. A. :DESKRIBAPENA


## Pila elektrokimika

- Erreakzio kimikoaren bidez elektrizitatea sorrarazten duen sistema da
- Osagaiak
  - . Bi elektrodo
  - . Bi ioiezko ur-disoluzio
  - . Gatz-zubi bat
  - . Zirkuitu elektriko bat







## 1. A. :DESKRIBAPENA




- Gertatzen den erreakzio




- Oxidazio: erreakzio: elektroien galera



- Erredukzio: elektroien harrapaketa



1. A. :DESKRIBAPENA





## 1. A. :DESKRIBAPENA

➤ Ikuspuntu teorikotik, azido-base erreakzioak bezala, erredox direlakoak bi erdi-erreakzioetan banatzen dira: erredukzioa eta oxidazioa

➤ Praktikan banaezinak diren erdi-erreakzio biak elkarrekiko mendekotasuna adierazten dute, aldi berean gertatzen baitira





➤ Bi erdi-erreakzioak aldi berean gertatzen direnez, erredox erreakzioa doitzeko elkarrekin **trukatzen diren elektroien kopuruak bera** izan behar dela hartu behar da kontuan.



## 1. A. :DESKRIBAPENA





➤ Hurrengo erreakzioa aluminioaren ekoizpenari dagokio



Oxigenoak ez du aldatzen bere oxidazio-egoera, horregatik ez da agertzen erredox erreakzioan

## 1. A. :DESKRIBAPENA

➤ Ondoko erreakzioa ere, erredox motakoa da:



Ez dago  
erreakziorik



ELEKTRODOAK

erredukzioa




KATODOA

oxidazioa



ANODOA



ELEKTROIAK




1. B: INDAR ELEKTROERAGILEA , OREKA ETA  $\Delta G$ 

$E(A_{ox}/A_{er})$  elektrodo potentziala

$A_{ox}$  espeziak daukan erreduzitzeko ahalmena

$E(B_{ox}/B_{er})$  elektrodo potentziala

$B_{ox}$  espeziak daukan erreduzitzeko ahalmena



INDAR ELEKTROERAGILEA (E)



$$E = E(A_{ox}/A_{er}) - E(B_{ox}/B_{er})$$

edo

$$E = E(A_{ox}/A_{er}) + E(B_{er}/B_{ox})$$


### 1. B: INDAR ELEKTROERAGILEA , OREKA ETA $\Delta G$

- $E(A_{ox}/A_{er})$  eta  $E(B_{ox}/B_{er})$ : erredukziozko elektrodo-potentzialak  
 $E(B_{er}/B_{ox})$ : oxidaziozkoa elektrodo-potentzialak (egun ez erabiliak)
- Bi modu hauek erabil ditzakezue baina kontuz potentzialaren zeinuarekin.
- Taulan agertutako E-ren baloreak BETI erredukziozkoak dira eta oxidaziozkoat hartzeko zeinua aldatu behar dugu.
- Zertarako behar dugu indar elektroeragilea?



### 1. B: INDAR ELEKTROERAGILEA , OREKA ETA $\Delta G$

- Erredox erreakzioetan elektroien garraioa neur daiteke, **E, indar elektroeragilearen bidez (i.e.e)**



- Nola kalkulatu E ?

Erreduzitzeko ahalmena konparatuz

**1. B: INDAR ELEKTROERAGILEA , OREKA ETA  $\Delta G$** 

$A_{ox}$  espeziak daukan erreduzitzeko ahalmena

$B_{ox}$  espeziak daukan erreduzitzeko ahalmena

baino **HANDIAGO**a baldin bada...

**OREKA  $\rightarrow$**

$A_{ox}$  espeziak daukan erreduzitzeko ahalmena

$B_{ox}$  espeziak daukan erreduzitzeko ahalmena

baino **TXIKIAGO**a baldin bada...

**OREKA  $\leftarrow$**

### 1. B: INDAR ELEKTROERAGILEA, OREKA ETA $\Delta G$

Erredox erreakzioetan elektroien garraioa neur daiteke **E**, indar elektroeragilearen bidez (i.e.e)



$$E(A_{ox}/A_{er}) > E(B_{ox}/B_{er}) \quad \text{OREKA} \rightarrow \quad V_1(\text{zuzena}) > V_2(\text{alderantzikoa})$$

$$E(A_{ox}/A_{er}) < E(B_{ox}/B_{er}) \quad \text{OREKA} \leftarrow \quad V_2(\text{zuzena}) > V_1(\text{alderantzikoa})$$

$$E(A_{ox}/A_{er}) = E(B_{ox}/B_{er}) \quad \text{OREKA} \leftrightarrow \quad V = V_1(\text{zuzena}) = V_2(\text{alderantzikoa})$$

Oreka-konstante

$$K_{\text{oreka}} = \frac{[A_{er}]^{n_2} [B_{ox}]^{n_1}}{[A_{ox}]^{n_2} [B_{er}]^{n_1}}$$


## 1. B: INDAR ELEKTROERAGILEA , OREKA ETA $\Delta G$

### INDAR ELEKTROERAGILEA ETA OREKA

➤  $E(A_{ox} / A_{er}) > E(B_{ox} / B_{er})$  , orduan  $A_{ox}$  eta  $B_{er}$  ➔  $A_{er}$  eta  $B_{ox}$



- Erreakzioa gertatzen den heinean produktuak hasten dira eratzten
- Fe eta  $Fe^{II}$  espezieek erredox bikote bat osatzen dute eta kontzentrazio jakin batzuetan orekan egongo dira
- $H^+$  eta  $H_2$  espezieek erredox bikote bat osatzen dute eta kontzentrazio jakin batzuetan orekan egongo dira

**1. B: INDAR ELEKTROERAGILEA , OREKA ETA  $\Delta G$** 

**1. B: INDAR ELEKTROERAGILEA , OREKA ETA  $\Delta G$** 

- Ikuspuntu kimikotik, sistema bat orekan dagoenean energia askearen aldaketa nuloa da ,  $\Delta G=0$
- $\Delta G$  eta E parametroak harremanean daude
- Ondoko ekuazioa dugu  $\Delta G$  magnitude kimikoaren eta E magnitude elektrikoaren arteko erlazioa finkatzen duena

$$\Delta G = - nFE$$

non n trukutzen den elektroio-kopurua den eta F, Faraday-en konstantea ( $96500 \cdot C \text{ mol}^{-1}$ ).

$$\Delta G = - n F E$$

- . Kimikan orekako sistemaren  $\Delta G = 0$ 
  - . Prozesu espontaneotan  $\Delta G < 0$
  - . Prozesu ez-espontaneotan  $\Delta G > 0$
  
- . Elektrokimikan orekako sistemaren  $E = 0$ 
  - . Prozesu espontaneotan  $E > 0$
  - . Prozesu ez-espontaneotan  $E < 0$

**1. B: INDAR ELEKTROERAGILEA , OREKA ETA  $\Delta G$** 

*Faradayren konstantea elektroi-mol bati dagokion karga da:*

$$(F=e \cdot N=1,602 \cdot 10^{-19} \text{ C} \cdot 6,023 \cdot 10^{23} \text{ mol}^{-1}=96485.31 \text{ C mol}^{-1} \approx 96500 \text{ C} \cdot \text{mol}^{-1}).$$

$\Delta G = n \cdot F \cdot E$  magnitudearen **unitateak:  $\text{J mol}^{-1}$**  → energia

Nondik?

$$\begin{aligned} 1\text{C} &= 1\text{A} \cdot \text{s} & (q &= I \cdot t) \\ 1\text{V} &= 1\text{J} \cdot \text{A}^{-1} \cdot \text{s}^{-1} & (W &= q \cdot V \rightarrow V = W/q) \end{aligned}$$

$$\Delta G = \text{C (mol}^{-1}\text{)}(\text{V}) = (\text{A} \cdot \text{s}) (\text{mol}^{-1})(\text{J A}^{-1} \text{s}^{-1}) = \text{J mol}^{-1}$$



## 1. C: ELEKTRODO-POTENZIAL ESTANDARRA

➤  $E_{(A_{ox}/A_{er})}$  elektrodo potentzialak ondoko aldagaiekiko mendekotasuna adierazten du

- . Guztizko Kontzentrazioa
- . Temperatura
- . Presioa



- . Guztizko kontzentrazioa=1 M
- . Temperatura=25°C
- . Presioa=1 atm

➤ Baldintza estandarretan:

$E^{\circ}(A_{ox}/A_{er})$  elektrodo potentzial estandarra

IUPAC: Elektrodo potentzial estandarra edo normala,  $E^{\circ}$


*“Erdi-gelaxka bateko erredukzio-erreakzioaren indar elektroeraginearen balioa”*

## 1. C: ELEKTRODO-POTENZIAL ESTANDARRA

- Nola determinatu espezie baten Elektrodo Potentzial Estandarra?

Azido-Base sistemetan bezala erreferentziako elektrodo-potentzial estandar finkatzen da eta konparazioz beste guztien baloreak determinatzen dira

- Honela hidrogenoaren elektrodo-potentzial estandarra definitzen da





- $A_{\text{ox}} / A_{\text{er}}$  bikotearen sendotasuna  $\text{H}^+ / 1/2 \text{H}_2$  bikotearenarekin konparatzen da

## 1. C: ELEKTRODO-POTENZIAL ESTANDARRA


$A_{ox}/A_{er}$  bikotearen sendotasuna  $H^+/1/2H_2$  bikotearenarekin konparatzen da

$$E^0(A_{ox}/A_{er}) > E^0(H^+/1/2 H_2) = 0$$




$$E = E^0(A_{ox}/A_{er}) - E^0(H^+/1/2 H_2) = E^0(A_{ox}/A_{er})$$

$$(E^0(A_{ox}/A_{er}) < E^0(H^+/1/2 H_2) = 0)$$



$$E = E^0(H^+/1/2 H_2) - E^0(A_{ox}/A_{er}) = -E^0(A_{ox}/A_{er})$$

Guzti hauek oxidatu ahal ditugu  
H<sup>+</sup> erabiliz



$$E^0 = -2.71 \text{ V}$$


$$E^0 = -2.36 \text{ V}$$

$$E^0 = -1.66 \text{ V}$$


$$E^0 = -0.76 \text{ V}$$

$$E^0 = -0.41 \text{ V}$$


$$E^0 = -0.41 \text{ V}$$




$$E^0 = 0.0 \text{ V}$$



Guzti hauek ezin ditugu oxidatu  
H<sup>+</sup> erabiliz



$$E^0 = 0.0 \text{ V}$$



$$E^0 = 0.20 \text{ V}$$




$$E^0 = 0.34 \text{ V}$$



$$E^0 = 0.80 \text{ V}$$



$$E^0 = 0.85 \text{ V}$$



$$E^0 = 0.96 \text{ V}$$



$$E^0 = 1.20 \text{ V}$$



$$E^0 = 1.69 \text{ V}$$



### 1. C: ELEKTRODO-POTENTZIAL EZ – ESTANDARRA. NERNSTEN EKUAZIOA

- Lan-baldintzetan espezieen kontzentrazioak ez du zertan  $[A]=1M$  izan behar eta, horregatik, komeni da elektrodo-potentzial ez-estandarrek kalkulatu ahal izatea
- Horretarako Nernsten ekuazioa garatu beharra dago, betiko erreakzioatik abiatuta
- Hau da, baldintza estandarretan elektrodo potentziala:  $E^\circ$
- Baina edozein baldintzetan:  $E$  ?????

## 1. C: ELEKTRODO-POTENTZIAL EZ – ESTANDARRA. NERNSTEN EKUAZIOA

➤ Termodinamikak dio:

$$\Delta G = \Delta G^\circ + RT \ln Q, \text{ baina } \Delta G = -nFE \text{ eta } \Delta G^\circ = -nFE^\circ \text{ direnez:}$$

$$-nFE = -nFE^\circ + RT \ln Q$$

➤ Gai guztietan zati nF eraginez:

$$-E = -E^\circ + \frac{RT}{nF} \ln Q$$

➤ Zeinuak aldatuz:

$$E = E^\circ - \frac{RT}{nF} \ln Q$$

$$\frac{R(J.mol^{-1}K^{-1})T(K)}{F(C.mol^{-1})} .2,3026 = 0,059V$$

➤  $\ln x = 2,3026 \log x$  denez eta konstanteen baloreak ordezkatzuz:

$$E = E^\circ - \frac{0,059}{n} \log Q$$

Nernsten  
ekuazioa

## 1. C: ELEKTRODO-POTENZIAL EZ – ESTANDARRA. NERNSTEN EKUAZIOA

➤ Baina zer da Q?

Gogoratu:




➤ Aktibitate-koefizientea, Q: une jakin batean dauden kontzentrazioen erlazioa

$$Q = \frac{[A_{er}]^{n_2} [B_{ox}]^{n_1}}{[A_{ox}]^{n_2} [B_{er}]^{n_1}}$$

➤ Erredox-bikote batentzat, erreakzio honekin abiatuta, eta  $[H^+]^n = 1$

$$[P_{H_2}] = 1 \text{ atm}$$



$$Q = \frac{[A_{er}][H^+]^n}{[A_{ox}][P_{H_2}]^{\frac{n}{2}}} \longrightarrow Q = \frac{[A_{er}]}{[A_{ox}]}$$



## 1. C: ELEKTRODO-POTENZIAL EZ – ESTANDARRA. NERNSTEN EKUAZIOA

$$E = E^{\circ} - \frac{0,059}{n} \log Q$$

$$E = E^{\circ} - \frac{0,059}{n} \log \frac{[A_{er}]}{[A_{ox}]}$$

Elektrodo baterako

Baina zelula batentzat:

$$Q = \frac{[A_{er}]^{n_2} [B_{ox}]^{n_1}}{[A_{ox}]^{n_2} [B_{er}]^{n_1}}$$

$$E = E^{\circ} - \frac{0,059}{n} \log \frac{[A_{er}]^{n_2} [B_{ox}]^{n_1}}{[A_{ox}]^{n_2} [B_{er}]^{n_1}}$$

Zelula baterako

## 1. C: ELEKTRODO-POTENZIAL EZ – ESTANDARRA. NERNSTEN EKUAZIOA

$$E = E^\circ - \frac{0,059}{n} \log Q$$

Nernsten ekuazioa

Zelula baterako

$$Q = \frac{[A_{er}]^{n_2} [B_{ox}]^{n_1}}{[A_{ox}]^{n_2} [B_{er}]^{n_1}}$$

Elektrodo baterako

$$Q = \frac{[A_{er}]}{[A_{ox}]}$$

$$E = E^\circ - \frac{0,059}{n^*} \log \frac{[A_{er}]^{n_2} [B_{ox}]^{n_1}}{[A_{ox}]^{n_2} [B_{er}]^{n_1}}$$

$$E = E^\circ - \frac{0,059}{n} \log \frac{[A_{er}]}{[A_{ox}]}$$

 $n^*: n_1 \cdot n_2$

**1. C: ELEKTRODO-POTENZIAL EZ – ESTANDARRA. NERNSTEN EKUAZIOA**

Oreka-konstantea eta pila baten elektrodo-potentzialaren arteko erlazioa

$$E = E^{\circ} - \frac{0,059}{n} \log Q$$








Orekan  $E = 0$  eta  $Q = K$

$$0 = E^{\circ} - \frac{0,059}{n} \log K$$

$$E^{\circ} = \frac{0,059}{n} \log K$$

# Ariketa 1.Kontzeptuak lantzeko

Hurrengo erreakzioetan identifikatu oxidatzen eta erreduzitzen den elementua:



# Ariketa 2. Oreka-konstantea kalkulua

25 °C-tan uretan disolbaturiko burdina(III) ioiaren eta kobre metalikoaren arteko erreakzioaren oreka-konstantea,  $k_{or}$ , kalkulatu.



Datuak:  $E^0_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}} = + 0,771 \text{ V}$ ;  $E^0_{\text{Cu}^{2+}/\text{Cu}} = + 0,337 \text{ V}$

$$E^0 = \frac{0,059}{n} \log k_{or}$$



n: erreakzioan transferituriko elektroien molen kopurua (kalkulatzeko erdi-erreakzioak idazteak laguntzen digu)

# Ariketa 2. Oreka-konstantea kalkulak

25 °C-tan uretan disolbaturiko burdina(III) ioien eta kobre metalikoaren arteko erreakzioaren oreka-konstantea,  $k_{or}$ , kalkulatu.




Datuak:  $E^0_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}} = + 0,771 \text{ V}$ ;  $E^0_{\text{Cu}^{2+}/\text{Cu}} = + 0,337 \text{ V}$



$E^0 = 0,434 \text{ V} > 0 \rightarrow$  erreakzioa espontaneo izango da

# Ariketa 2.Oreka-konstantea kalkulua

25 °C-tan uretan disolbaturiko burdina(III) ioien eta kobre metalikoaren arteko erreakzioaren oreka-konstantea,  $k_{or}$ , kalkulatu.



Datuak:  $E^0_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}} = +0,771 \text{ V}$ ;  $E^0_{\text{Cu}^{2+}/\text{Cu}} = +0,337 \text{ V}$

$k_{or}$  kalkulua

$$E^0_{\text{zel}} = 0,434 \text{ V} = (0,059/2) \cdot \log k_{or}$$

$$\text{Log } k_{or} = 14,71$$

$$k_{or} = 10^{14,71} = 5,15 \cdot 10^{14}$$




OSO  
HANDIA

# Ariketa 3.erreakzioaren espontaneotasuna aurreratego kalkulak

Uretan disolbaturiko  $\text{Cu}^{2+}(\text{aq})$  ioiak Al metalikoa desplazatuko du?




Datuak:  $E^0_{\text{Al}^{3+}/\text{Al}} = - 1,676 \text{ V}$  ;  $E^0_{\text{Cu}^{2+}/\text{Cu}} = + 0,337 \text{ V}$



Oxidazioa       $2 [\text{Al} (\text{s}) \rightarrow \text{Al}^{3+}(\text{1M}) + 3 \text{e}^-]$       -       $E^0_{\text{Al}^{3+}/\text{Al}} = 1,676 \text{ V}$

Erredukzioa       $3[\text{Cu}^{2+}(\text{1M}) + 2 \text{e}^- \rightarrow \text{Cu} (\text{s})]$        $E^0_{\text{Cu}^{2+}/\text{Cu}} = 0,337 \text{ V}$



$E^0_{\text{zel}} = 2,013 \text{ V} > 0 \rightarrow$  erreakzioa espontaneo da, bai



## Eranskina: pH-arekiko potentzial estandarra

- Erredukzio potentzial estandarra,  $E^0$ , pH-arekiko menpekotasuna du hurrengo bi kasutan:erreakzioaren ingurunean
  - $H^+$  edo  $OH^-$  badaude
  - Hidroxido disolbaezinak sor ditzaketen ioi metalikoak badaude
- Beraz, horrelako kasuetan erreakzio ingurune desberdinetako potentzialak kalkulatu behar da
- Nernsten ekuazioaren baliatuz kalkula daiteke
- Azter dezagun pHak duen eragina

- Adibidez



- Nernsten ekuazioa aplikatuz gero

$$E = E^0_{\text{A}} - \frac{0,0592}{2} \log \frac{[\text{ClO}_3^-]}{[\text{ClO}_4^-][\text{H}^+]^2}$$

- Baldintza estandarretan  $\Rightarrow [ ] = 1 \Rightarrow 2^{\circ} \text{ gaia} = 0 \Rightarrow E = E^0_{\text{A}}$
- pH  $\neq 0$   $\Rightarrow [ ] = 1$  baina  $[\text{H}^+] \neq 1 \Rightarrow E \neq E^0_{\text{A}}$
- Beraz, Nernsten ekuazioan ordezkatzuz

$$E = 1,19 - \frac{0,0592}{2} \log \frac{1}{[\text{H}^+]^2} = 1,19 - 0,0592 \text{ pH}$$


- $E^0$  ingurune basikoan,  $\text{pH} = 14$

$$E^0_{\text{B}} = 1,19 - 0,0592 (14) = 0,36 \text{ V}$$

- Beraz
  - $E^0_{\text{A}} = 1,19 \text{ V}$
  - $E^0_{\text{B}} = 0,36 \text{ V}$

Kontuan izateko:

- Le Chatelierren Printzipioaren arabera



**oxidatzailea izateko ahalmena handitzen da  $[\text{H}^+]$  handitzean**

## 2. ERREDOX EGONKORTASUNA

## 2.a. uraren erredox sistema


- Uretan erreakzioetan.... uraren funtzioa ikuslea besterik ez da?
- Edozein espezieak ura oxidatu edo erreduzitu egin ahal du eta honek uretan **espezieen egonkortasuna murrizten du**



Bien arteko ELKARREKINTZA

Erreakzioaren gertaera

Uraren egonkortasuna



Bikote erredoxaren egonkortasuna


- Ikusiko dugu egonkortasuna pH-arekiko

## 2.a. uraren erredox sistema

Urak oxidatu edo erreduzitu egin dezakeen edozein espeziea ez da izango egonkorra uretan. Kontuan izan behar da:

*Uraren oxidazio prozesua (oxigenoaren erredukzio prozesua)*

Erreakzioa honakoa da



- Nernst-ekuazioa aplikatuz ,  $\text{pH} \neq 0$  ,


$$p(\text{O}_2)=1\text{atm} , [\text{H}_2\text{O}]= 1\text{M}$$

$$E = E^\circ - \frac{0,0592}{4} \log \frac{1}{[\text{H}^+]^4} = 1,229 - 0,0592 \text{ pH}$$



- Uretan edozein espeziea  $E > 1,229 - 0,0592\text{pH}$  izanez gero erreduzituko da, ura oxidatuz

## 2.a. uraren erredox sistema

Demagun  $\text{MnO}_4^-$ ,  $\text{pH} = 0$ ,  $[\text{H}^+] = 1$



$\cdot \text{MnO}_4^-$  ioiak  $\text{pH} = 0$  denean uretan erreduzituko da ura oxidatuz




$$E^\circ_{\text{A}} = 1,51 - 1,229 = 0,281 \text{ V} > 0$$

$E^\circ > 0 \Rightarrow$  berezko erreakzioa baldintza estandarretan

## 2.a. uraren erredox sistema

### *Uraren erredukziozko prozesua*

. Erreakzioa honakoa da



. Nernsten ekuazioa aplikatuz,  $\text{pH} \neq 0$  ,  $p(\text{H}_2)=1 \text{ atm}$

$$E = E^0 - \frac{0,0592}{2} \log \frac{1}{[\text{H}^+]^2} = -0,0592 \text{ pH}$$

. Uretan edozein espeziea  $E < -0,0592 \text{ pH}$  izanez gero oxidatuko da, ura erreduzituz




## 2.a. uraren erredox sistema

Demagun Na eta  $\text{pH} = 0$



$\text{Na}^+$  ioia  $\text{pH} = 0$  denean oxidatuko da, ura erreduzituz



$E^{\circ} > 0 \Rightarrow$  berezko erreakzio baldintza estandarretan

## 2.a. uraren erredox sistema. LABURBILDUZ.....

## Uraren oxidazioa




$$E(1/2\text{O}_2/\text{H}_2\text{O}) = E^0(1/2 \text{O}_2/ \text{H}_2\text{O}) - \frac{0,059}{4} \log \frac{1}{[P_{\text{O}_2}] [\text{H}^+]^4}$$

$$p(\text{O}_2)=1\text{atm} , [\text{H}_2\text{O}]= 1\text{M}$$

$$E(\text{O}_2/ \text{H}_2\text{O}) = 1,23 - 0,059\text{pH}$$

## Uraren erredukzioa



$$E^0(\text{H}^+/\text{H}_2) = E(\text{H}^+/\text{H}_2) - \frac{0,059}{2} \log \frac{[P \text{H}_2]}{[\text{H}^+]^2}$$

$$p(\text{H}_2)=1 \text{ atm}$$

$$E(\text{H}^+/\text{H}_2) = - 0.059\text{pH}$$

$\text{H}_2 / \text{H}_2\text{O} (\text{H}^+) / \text{O}_2$   
sistema elektrolitikoa

## 2.a. uraren erredox sistema


Ekuazioak grafikoki adierazita:

. Uraren oxidazioa

$$E = 1,229 - 0,0592 \text{ pH}$$

. Uraren erredukzioa

$$E = - 0,0592 \text{ pH}$$



*Edozein espeziek, pH jakin bateko E-ren balorea bi lerro hauen artean izan ezean, ez da izango egonkorra bi eratan, oxidatuta eta erreduzituta, bakarrik haietariko batean baizik*


## 2.a. uraren erredox sistema

$$E_{(1/2 \text{ O}_2/\text{H}_2\text{O})} > E(\text{A}_{\text{ox}}/\text{A}_{\text{red}}) > E_{(\text{H}_2\text{O}/1/2\text{H}_2)}$$

$\text{A}_{\text{ox}}$  eta  $\text{A}_{\text{red}}$  egonkorak


$$E_{(1/2 \text{ O}_2/\text{H}_2\text{O})} < E(\text{A}_{\text{ox}}/\text{A}_{\text{red}}) \quad \text{A}_{\text{red}} \text{ egonkorra}$$

$$E(\text{A}_{\text{ox}}/\text{A}_{\text{red}}) < E_{(\text{H}_2\text{O}/1/2\text{H}_2)} \quad \text{A}_{\text{ox}} \text{ egonkorra}$$



Lerro gorri jarraiak uraren egonkortasunaren mugak adierazten dira

## 2.a. uraren erredox sistema



Uraren oxidazioa muga

Uraren erredukzioa muga

Gogoratu  $Cr_2O_7^{2-} \leftrightarrow CrO_4^{2-}$

Erredox bikoteen egonkortasunaren zonaldea, pH-arekiko aldakorra

## 2.a. uraren erredox sistema

### ➤ Aurrekoa ikusita....

Nola da posiblea uretan permanganato espeziea ezegonkorra denez oxidatzaile gisa ur-inguruan erabiltzea????

Erreakzioaren zinetikoa, ere, kontuan hartu behar da.

➤ Erredukziozko erreakzioa oso motela bada luzaroan diraute uretan erabat erreduzitu barik eta ondorioz, erabili ahal dugu oxidatzaile modura.


➤ Horregatik, praktikan, bai  $\text{MnO}_4^-$ , bai  $\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}$  uretan oxidatzailetzat ditugu, pH zero denean, nahiz eta honako hauek  $E^\circ$  izan:

$$E^\circ (\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-} / \text{Cr}^{3+}) = 1.81 \text{ V} \quad (> 1.23 \text{ V})$$

$$E^\circ (\text{MnO}_4^- / \text{Mn}^{2+}) = 1.52 \text{ V} \quad (> 1.23 \text{ V})$$

➤ Uraren egonkortasuna ikusitako mugak 0,5 V gorantz eta beherantz hedatzen dira

## 2.a. uraren erredox sistema



Gogoratu  $Cr_2O_7^{2-} \leftrightarrow CrO_4^{2-}$

## 2.a. uraren erredox sistema

Uretan disoluzio batean eta  $\text{pH} = 0$  izanik,  $\text{SO}_4^{2-}$  ioiak ditugu.  $\text{ZnCl}_2(\text{s})$  gehituz gero posiblea izango da  $\text{Zn}(\text{SO}_4)$  eraketa?

Datuak:  $E^\circ(\text{Zn}^{2+}/\text{Zn}) = -0,76 \text{ V}$

$E^\circ(\text{H}_2\text{O} / \frac{1}{2} \text{H}_2) = -0,059 \text{ pH}$

$E^\circ(\frac{1}{2} \text{O}_2 / \text{H}_2\text{O}) = 1.23 - 0.059 \text{ pH}$



## 2.b. Oxidazioarekiko metalen egonkortasuna

Metal ez-nobleak	$E^{\circ}$	Metal nobleak	$E^{\circ}$
$\text{Na}^+ + 1e^- \rightarrow \text{Na}$	-2.71 V	$\text{Cu}^{2+} + 2e^- \rightarrow \text{Cu}$	0.34 V
$\text{Mg}^{2+} + 2e^- \rightarrow \text{Mg}$	-2.36 V	$\text{Ag}^+ + 1e^- \rightarrow \text{Ag}$	0.80 V
$\text{Al}^{3+} + 3e^- \rightarrow \text{Al}$	-1.66 V	$\text{Hg}^{2+} + 2e^- \rightarrow \text{Hg}$	0.85 V
$\text{Zn}^{2+} + 2e^- \rightarrow \text{Zn}$	-0.76 V	$\text{Pt}^{2+} + 2e^- \rightarrow \text{Pt}$	1.20 V
$\text{Fe}^{2+} + 2e^- \rightarrow \text{Fe}$	-0.41 V	$\text{Au}^+ + 1e^- \rightarrow \text{Au}$	1.69 V
$\text{Sn}^{2+} + 2e^- \rightarrow \text{Sn}$	-0.14 V		

Uretan disolbatzen dira  
( $\text{H}^+$  -ak oxidatuta):

**Ez nobleak**

Uretan ez dira disolbatzen  
( $\text{H}^+$ -ak ezin du oxidatu):

**nobleak**

## 2.b. Oxidazioarekiko metalen egonkortasuna

- Oso  $E^0$ -ren balore negatibo handia duen metal baten disoluzioak  $H_2$  sortarazi du
- Uretan disolbatuko dira, neurri handiagoan potentziala negatiboagoa den ahala: **metal eznoBLEAK**
- Salbuezpenak
  - . Oxido pasibatzaileak
  - . Anodizazio-prozesuak (Al eta Mg)

Metal eznoBLEAK	$E^0$
$Na^+ + 1e^- \rightarrow Na$	-2.71 V
$Mg^{2+} + 2e^- \rightarrow Mg$	-2.36 V
$Al^{3+} + 3e^- \rightarrow Al$	-1.66 V
$Zn^{2+} + 2e^- \rightarrow Zn$	-0.76 V
$Fe^{2+} + 2e^- \rightarrow Fe$	-0.41 V
$Sn^{2+} + 2e^- \rightarrow Sn$	-0.14 V

Hainbat metalen  
erredukziozko potentzialak

## 2.b. Oxidazioarekiko metalen egonkortasuna

- . Uretan ez dira oxidatzen: **metal nobleak**
- . Bakarrik *azido oxidatzaile* deritzonok oxidatzen dute
- . Uretan disolbatzeko azido nitrikoaren edo sulfurikoaren erasoak jasan behar dute

Metal nobleak	$E^{\circ}$
$\text{Cu}^{2+} + 2\text{e}^{-} \rightarrow \text{Cu}$	0.34 V
$\text{Ag}^{+} + 1\text{e}^{-} \rightarrow \text{Ag}$	0.80 V
$\text{Hg}^{2+} + 2\text{e}^{-} \rightarrow \text{Hg}$	0.85 V
$\text{Pt}^{2+} + 2\text{e}^{-} \rightarrow \text{Pt}$	1.20 V
$\text{Au}^{+} + 1\text{e}^{-} \rightarrow \text{Au}$	1.69 V

Hainbat metalen  
erredukziozko potentzialak

## 2.b. Oxidazioarekiko metalen egonkortasuna

- . Na-a oso azkar disolbatu egiten da uretan
- . Fe-a denbora gehiago behar du (zinetika motelagoa du)



Metales no nobles	$E^0$
$\text{Na}^+ + 1e^- \rightarrow \text{Na}$	-2.71 V
$\text{Fe}^{2+} + 2e^- \rightarrow \text{Fe}$	-0.41 V

- . Aireak burdina oxidatzen du




$\text{Fe}^{2+}$  ioia egonkorra da uretan baina oxigenoz joria den ingurune batean eta pH zero denean  $\text{Fe}^{3+}$  ioiara berezko oxidazioa jasatzen du

## 2.b. Oxidazioarekiko metalen egonkortasuna


. Oxidazioa motelegia izanez gero areagotzeko azidoak erabiltzen dira:  $\text{HNO}_3$  eta  $\text{H}_2\text{SO}_4$

.  $\text{H}^+$ -z aparte oxidatzailea den anioi bat daukate: **azido oxidatzaileak**

Metales ez nobleak	$E^\circ(\text{V})$	Metal nobleak	$E^\circ(\text{V})$
$\text{Mg}^{2+} + 2\text{e}^- \rightarrow \text{Mg}$	-2.36	$\text{Ag}^+ + 1\text{e}^- \rightarrow \text{Ag}$	0.80
$\text{Al}^{3+} + 3\text{e}^- \rightarrow \text{Al}$	-1.66	$\text{Hg}^{2+} + 2\text{e}^- \rightarrow \text{Hg}$	0.85
$\text{Zn}^{2+} + 2\text{e}^- \rightarrow \text{Zn}$	-0.76	$\text{Pt}^{2+} + 2\text{e}^- \rightarrow \text{Pt}$	1.20
$\text{Fe}^{2+} + 2\text{e}^- \rightarrow \text{Fe}$	-0.41	$\text{Au}^+ + 1\text{e}^- \rightarrow \text{Au}$	1.69



$$E^\circ(\text{NO}_3^-/\text{NO}) = 0.96 \text{ V}$$




$$E^\circ(\text{SO}_4^{2-}/\text{H}_2\text{SO}_3) = 0.20 \text{ V}$$

## 2.c. Dismutazioarekiko egonkortasuna



➤ Espezie batek aldi berean oxidazioa eta erredukzioa pairatzen duenean, dismutatu egiten da

➤ Cu-ren erredukzio potentzialak uraren egonkortasun zonaldearen barruan daude baina Cu(I) uretan ez da egonkorra dismutazioagatik



## 2.c. Dismutazioarekiko egonkortasuna

➤ Orokorrean,  $M^{(n+1)+} / M^{n+} / M^{(n-1)+}$



➤ Dismutazio espontaneo gerta dadin,  $E_M^{\circ n+ / M^{(n-1)+}} > E_M^{\circ (n+1)+ / M^{n+}}$

Honela 1) ← oxidazioa

2) → erredukzioa



## 2.c. Dismutazioarekiko egonkortasuna

Ariketa:  $\text{Fe}^{2+}$  ioiaren dismutazioa

a) Baldintza estandarretan  $\text{Fe}^{2+}$  dismutatzen da ?

Erredox espezieak:  $\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}/\text{Fe}$

$$E^\circ_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}} = 0.77 \text{ V}$$

$$E^\circ_{\text{Fe}^{2+}/\text{Fe}} = -0.41 \text{ V}$$

b)  $[\text{Fe}^{2+}] = 0,5 \text{ M}$  eta  $[\text{Fe}^{3+}] = 0,25 \text{ M}$  bada?

c)  $[\text{Fe}^{2+}] = 2 \text{ M}$  eta  $[\text{Fe}^{3+}] = 0,25 \text{ M}$  bada?

d)  $[\text{Fe}^{2+}] = 1 \text{ M}$  bada, zein izan behar da  $[\text{Fe}^{3+}]$  kontzentrazioa  $\text{Fe}^{2+}$  dismutatzeko ? Ondorio bat ateratzen duzu?



### 3. ELEKTRODO-POTENTZIAL FORMALAK

### 3. ELEKTRODO-POTENZIAL FORMALAK


- Erreodox-erreakzioek, zenbait aldagairekiko mendekotasuna adierazten dute: pH-a, hauspeakinen formazioa eta abar.
- $E^0$ -ren balorea pH-arekiko menpekotasuna du ingurunean...
  - .  $H^+$  edo  $OH^-$  ioiak badaude
  - . Hidroxido disolbaezinak eratuz gero
- Oreka-mota desberdinak aldi berean gertatzen dira
- Ingurune desberdinetako potentzialak desberdinak izan daitezke

### 3. ELEKTRODO-POTENZIAL FORMALAK

- Potentzial berriak, **Elektrodo Potentzial formalak deritzenak**,  
Nernsten ekuazioa erabiliz kalkula daitezke
- Bi kasu ikasten dira:
  1. erredox prozesuaren doiketan  $H^+$  edo  $OH^-$  agertzen dira  
(pH-ren eragina)
  2. erredox prozesua hauspeatze-prozesuarekin batera  
gertatzen da ( $K_s$ -ren eragina)

## 3. ELEKTRODO-POTENZIAL FORMALAK

## ➤ pH-eragina



$$E_A = E_A^{\circ} + \frac{0.059}{n} \log \frac{[A_{\text{ox}}][\text{H}^+]^{2m}}{[A_{\text{er}}]}$$

$$E_A = E_A^{\circ} + \frac{0.059}{n} \log [\text{H}^+]^{2m} + \frac{0.059}{n} \log \frac{[A_{\text{ox}}]}{[A_{\text{er}}]}$$

$$E_A = E_A^{\circ} - \frac{2m \cdot 0.059}{n} \text{pH} + \frac{0.059}{n} \log \frac{[A_{\text{ox}}]}{[A_{\text{er}}]}$$



**$E_A^{\circ'}$  = elektrodo-potenzial formala**

$$E_A = E_A^{\circ'} + \frac{0.059}{n} \log \frac{[A_{\text{ox}}]}{[A_{\text{er}}]}$$


## 3. ELEKTRODO-POTENZIAL FORMALAK

Aplikazioa adibidea:

$\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}$  dikromato ioiak zein pH tartean oxida dezake  $\text{Fe}^{2+}$  katioa ?

$$E^0_{\text{Cr}_2\text{O}_7/\text{Cr}^{3+}} = 1,33 \text{ V} \quad E^0_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}} = 0,77 \text{ V}$$

. pH=0 denean bi ioien arteko berezko erreakzioa hurrengoa da



. Edozein pH-tan zer gertatzen den jakiteko elektrodo potentzial formalak definitzen dira

pH-aren eragina bakarrik elektrodo honetan nabarigarria da



## 3. ELEKTRODO-POTENZIAL FORMALAK



Elektrodo honetarako potentzial formala kalkulatu dugu:

$$E_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-} / \text{Cr}^{3+}} = E_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-} / \text{Cr}^{3+}}^{\circ} + \frac{0.059}{6} \log \frac{[\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}][\text{H}^+]^{14}}{[\text{Cr}^{3+}]^2}$$

$$E_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-} / \text{Cr}^{3+}} = E_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-} / \text{Cr}^{3+}}^{\circ} + \frac{0.059}{6} \log[\text{H}^+]^{14} + \frac{0.059}{6} \log \frac{[\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}]}{[\text{Cr}^{3+}]^2}$$

$$E_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-} / \text{Cr}^{3+}} = E_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-} / \text{Cr}^{3+}}^{\circ} - \frac{14 \cdot 0.059}{6} \text{pH} + \frac{0.059}{6} \log \frac{[\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}]}{[\text{Cr}^{3+}]^2}$$

$E^{\circ'}$  = elektrodo-potentzial formala

## 3. ELEKTRODO-POTENZIAL FORMALAK



$$E'_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}/\text{Cr}^{3+}} = E^{\circ}_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}/\text{Cr}^{3+}} - \frac{14 \cdot 0.059}{6} \text{pH} = 1.33 - 0.138 \cdot \text{pH}$$



Hau da konparatu behar dena espontaneotasuna jakiteko!!!!

$$E'_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}/\text{Cr}^{3+}} > E^{\circ}_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}}$$

$$E'_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}/\text{Cr}^{3+}} < E^{\circ}_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}}$$



## 3. ELEKTRODO-POTENZIAL FORMALAK




$$E'_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}/\text{Cr}^{3+}} = E^{\circ}_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}/\text{Cr}^{3+}} - \frac{14 \cdot 0.059}{6} \text{pH} = 1.33 - 0.138 \cdot \text{pH}$$



Hau da konparatu behar dena!!!!

$$E'_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}/\text{Cr}^{3+}} > E^{\circ}_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}}$$

$$E'_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}/\text{Cr}^{3+}} < E^{\circ}_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}}$$





### 3. ELEKTRODO-POTENZIAL FORMALAK

Beraz, aurrekoa ikusita,  $\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}$  dikromato ioiak zein pH tartean oxida dezake  $\text{Fe}^{2+}$  katioa ?

$$E^{0'}_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}/\text{Cr}^{3+}} < E^0_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}}$$

$$1.33 - 0.138\text{pH} < 0.77$$

pH > 4.06,  $\text{Fe}^{3+}$  ioia erreduzitzen da

$$E^{0'}_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}/\text{Cr}^{3+}} > E^0_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}}$$

$$1.33 - 0.138\text{pH} > 0.77$$

pH < 4.06,  $\text{Fe}^{2+}$  ioia oxidatzen da

$$E^{0'}_{\text{Cr}_2\text{O}_7^{2-}/\text{Cr}^{3+}} = E^0_{\text{Fe}^{3+}/\text{Fe}^{2+}}$$



$$1.33 - 0.138\text{pH} = 0.77$$

pH = 4.06, oreka

### 3. ELEKTRODO-POTENZIAL FORMALAK

#### Disolbagarritasunaren eragina

- Disoluzioan dauden ioi metalikoek hidroxido disolbaezinak hauspearazten dutenean espezie baten potentziala alda daiteke
- Hauspeaketa honek ioiaren kontzentrazioan eragina izango du baita Nernsten ekuazioan ere
- Cu(II) espeziearentzat potentzial-taulan begiratzuz gero bi desberdinak aurkitu ditugu



#### 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (iee diagramak)

- $E^0$  erredukziozko potentzialak taulen bidez erabilgarriak ditugu
- Askotan ez dira onuragarriak



*ERREDOX PORTAERA ELEMENTU  
BATEN OXIDAZIO-EGOERA  
GUZTIETAN?*

- Hiru motakoak


Latimer-diagramak

Frost- diagramak




Porbaix-diagrama

## 4.ELEKTRODO-DIAGRAMA (iee diagramak)

## . Diagramas de Latimer





## . Diagramas de Frost y de Pourbaix



## 4.ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer- diagramak

- Elementu baten potentzial estandarrak oxidazio-egoerarekiko eta ingurunearekiko adierazten dira
- Ingurune azidoa eta basikoa bereizten dira
- Adibidez, boroaren diagramak



#### 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak

Diagrama hauetan erreakzioak era laburbilduta adierazita daude

Ondokoaren esangura




Hauxe da



#### 4..ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak

Oro har elkarren segidan doazen balioak baino ez dira ematen



Gainontzeko potentzialak kalkulatzeko kontuan hartu behar da:

- . Erredukzio potentzialak, E, ez dira gehigarriak
- .  $\Delta G$ -balioak, energia askea, edo Gibbsen energia bai direla gehigarriak
- . Beraz hauek erabiliz kalkuluak egin behar dira

## 4.ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak

Ondorengo ekuazioak erabili behar dira

$$\Delta G^{\circ} = \sum \Delta G_i^{\circ} \quad \left\{ \begin{array}{l} \Delta G^{\circ} = -(\sum n_i) E^{\circ} F \\ \Delta G_i^{\circ} = -n_i E_i^{\circ} F \end{array} \right\} \quad -(\sum n_i) E^{\circ} F = -\sum (n_i E_i^{\circ}) F$$

Beraz:

$$E^{\circ} = \frac{\sum (n_i E_i^{\circ})}{\sum n_i}$$

non

$\Delta G_i^{\circ}$  = pauso bakiotzeko  $\Delta G^{\circ}$

$E_{i^{\circ}}$  = pauso bakoitzeko  $E^{\circ}$

$\Delta G^{\circ}$  = erdigelaxka osoaren  $\Delta G^{\circ}$

$E^{\circ}$  = erdigelaxka osoaren  $E^{\circ}$



$n_i$  = erdigelaxka bakoitzean trukutzen diren elektroiak

$F$  = Faraday-konstantea



## 4.ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak

Adibidez



erdigelaxkaren  $E_B^0$  kalkulatzeko.....

$$E_B^0 = \frac{4(0,54) + 1(0,45) + 1(1,07)}{6} = 0,61$$

#### 4.ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak

E-ren diagramatik abiatuta desproporzioa edo dismutazioaren gertaera ezagu dezakegu

$\text{Br}_2$  dismutatzen da  $\text{Br}^-$  eta  $\text{BrO}^-$  espezieetan:




$E = 0,62 \text{ V} > 0 \Rightarrow$  berezko erreakzioa

## 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak

Oro har beti:

Noiz gertatuko da  
dismutazioa?

Espezie baten eskuineko  $E^0$  balioa ezkerrekoa baino handiagoa denean espezie honek dismutazioa jasango du




$\text{Br}_2$  dismutatzen da  $\text{Br}^-$  eta  $\text{BrO}^-$  espezieetan

$$E^0 = 1,07\text{V} - 0,45\text{V} = 0,62\text{V} > 0 \Rightarrow \text{berezko erreakzioa}$$

$\text{BrO}^-$  ez da dismutatzen da  $\text{Br}_2$  eta  $\text{BrO}_3^-$  espezieetan

$$E^0 = 0,45 - 0,54 = -0,09\text{V} < 0 \Rightarrow \text{ez berezko erreakzioa}$$

## 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak



Dismutazioa: 1,07 (eskumaldean) 0,45 baino handiagoa da

Dismutaziorik ez: 0,45(eskumaldean) 0,54 baino txikiagoa da



$\text{Br}_2$  dismutatzen da  $\text{Br}^-$  -tan eta  $\text{BrO}^-$  -tan

$$E^{\circ} = 1,07\text{V} - 0,45\text{V} = 0,62\text{ V} > 0 \Rightarrow \text{berezko erreakzioa}$$

$\text{BrO}^-$  ez da dismutatzen da  $\text{Br}_2$  -tan eta  $\text{BrO}_3^-$  -tan

$$E^{\circ} = 0,45 - 0,54 = -0,09\text{ V} < 0 \Rightarrow \text{ez berezko erreakzioa}$$

## 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak





Zein ingurutan gertatuko da dismutazioa?

$\text{Br}_2$  espeziea: dismutaziorik ez, ingurune azidoan

$\text{Br}_2$  espeziea: dismutazioa bai, ingurune basikoan

$\text{Br}^-$  espeziearen erredukzioak ez du adierazten pH-rekiko mendekotasunik, prozesuan parte hartzen ez dutelako ez  $\text{OH}^-$  ez  $\text{H}^+$  ioiek



## 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak



$\text{BrO}^-$  espeziea: dismutazioa bai,  $\text{Br}_2$  eta  $\text{BrO}_3^-$  espezieetan ,  
ingurune azidoan

$\text{BrO}^-$  espeziea: dismutazioarik ez, ingurune basikoan



## 4.ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak



Ingurune basikoan  $\text{BrO}^-$  espeziea: dismutazioa bai,  $\text{Br}^-$  eta  $\text{BrO}_3^-$  espezieetan

Dismutazio hau ez da gertatzen ingurune azidoan

## 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak



Zein ingurutan  
izango da  
oxidatzaile  
hobeena da

Ikusten denez,  $\text{BrO}_3^-$  espezia oxidatzaile hobeagoa dela ingurune azidoan, basikoan baino



#### 4.ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Latimer-diagramak

### GOGOAN IZATEKO....

- Aurrekoa aurreikuste termodinamikoak baino ez dira
- Prozesua zinetikaren kontrolpean badago, aurreikuste termodinamikoak ez dute zergatik bete behar
- Diagrama honetatik eskura dezakegu informazioa:
  - . Espontaneotasuna
  - . Ahalmen oxidatzailea
  - . Espezien egonkortasuna

1. Oinarriak	2. erredox egonkortasuna	3. Elektrodo formalak	4. Elektrodo - diagramak
--------------	--------------------------	-----------------------	--------------------------

#### 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Frost-diagramak

X elementu baten Frosten diagrama batean  $X(N)/X(0)$  bikote baten  $nE^\circ$  grafikutzen da N oxidazio-egoeraren aurrean.


$X(N) / X(0)$  erredox bikotearen edo  $X(N)$  espeziea  $X(0)$  espezie bihurtzean dagoen  $\Delta G^\circ$  eta  $nE^\circ$  proportzionalak dira:  $\Delta G^\circ = -n E^\circ F$

N=oxidazio-egoera

n=trukatzen diren elektroien kopurua

Erreferentzia N=0 baldin bada, N=n


N=5  
n=5



#### 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Frost-diagramak

$nE^0$ : Boltio-baliokidea (E.V.):

*Espezie baten zero oxidazio-egoerarekiko erredukzio-potentziala eta espeziearen oxidazio-egoeraren(N) arteko biderkadura da*







Oxidazio-egoera, ordena hazkorrean, N

Kontuan izan:  $-nE^0 = \Delta G^0 / F$

## 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Frost- Diagramak


Frost diagrama baten eraikitzeko Latimer-diagramaz baliatu behar dugu



Oxigenoaren Latimer-en diagrama ingurune azidoan

## 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Frost- Diagramak


Egiazta dezagun...



$$\Delta y = nE^\circ N - nE^\circ N = -2.46 - (-0.70) = -1.76 \text{ V}$$

$$\Delta x = -2 - (-1) = -1$$


$$m = \Delta y / \Delta x = (-1.76 / -1) = +1.76 \text{ V}$$



#### 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Frost- Diagramak

Oso erabilgarriak dira informazioa oso azkar eskura baititzakegu: erreakzioaren espontaneotasua

↓  
Egonkortasun termodinamikoa




$$nE^\circ = -\Delta G^\circ / F$$

#### 4.ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak):Frost-diagramak

Oso erabilgarriak dira informazioa oso azkar eskura baititzakegu: erreakzioaren espontaneotasua



- Espezie oxidatzailea malda handiena duena da, bera erreduzitzen baita
- Espezie erreduktorea malda txikiena duena da, bera oxidatzen baita



#### 4.ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak):Frost-diagramak

Erreakzioaren espontaneotasuna: dismutazioa edo desproporzioa

Espezie bat kokatuta baldin badago aldameneko bi espezien arteko lerroaren gainetik dismutatu egingo da






## 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Frost- Diagramak

$\text{N}_2\text{O}_4$  molekula honako  
dismutazio hau jasaten du





$$E = 0,88 - (-0,86) = 1,74 \text{ V} > 0 \Rightarrow \text{berezkoa}$$



## 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Frost- Diagramak



Erreakzioaren espontaneotasuna: konproportzioa

Espezie bat kokatuta baldin badago aldameneko bi espezien arteko lerroaren azpitik konproportzioa gertatuko da



## 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak): Frost- Diagramak

$\text{N}_2\text{O}_4$  eta  $\text{NO}$  molekulak  
konproporzionatzen dira  
 $\text{NO}_2^-$  emateko




$$E = 0,88 - (-0,46) = 1,34 \text{ V} > 0 \Rightarrow \text{berezkoa}$$

1. Oinarriak	2. erredox egonkortasuna	3. Elektrodo formalak	4. Elektrodo - diagramak
--------------	--------------------------	-----------------------	--------------------------


#### 4. ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak):Frost-diagramak

- Frosten diagramak lor daiteke erraz potentzial normalak erabiliz
- Nitrogenoaren diagrama ingurune basikoan eraikiko dugu
- Horretarako behar dugu Latimerren diagrama ingurune basikoan



- N oxidazio-egoeratik 0-ra doan erredukzio-potentziala kalkulatu behar da

## 4.ELEKTRODO-DIAGRAMA (IEE diagramak):Frost-diagramak



Hurrengo taula lor daiteke :

$$\text{NO}_3^- \quad E = \frac{1(-0,86) + 1(0,88) + 1(-0,46) + 1(0,76) + 1(0,94)}{5} = 0,25 \text{ V}$$


$$\text{N}_2\text{O}_4 \quad E = \frac{1(0,88) + 1(-0,46) + 1(0,76) + 1(0,94)}{4} = 0,53 \text{ V}$$

